

**HISTORIAURREA (1)*****PALEOLITOKO BIZIMODUA******Osatu testua proposatutako hitzak dagokien tokian jarri***

biltzaileak	fabrikatu	Arrantzan	elikagai	Ehiztariak	historiaurrearen
hotzerako arropa	harri puskak	arpoi	nomadak	aldendu	labana
leizeetan	Lehen gizakiak	Sua	txabolak	prestatu	harritzko
nekazaritza	silexa	aire zabalean	argiztatu		

Paleolitoa da (1)..... lehen etapa, eta luzeena ere bai.

(2)..... agertu zirenean hasten da, duela bost milio urte, gutxi gorabehera, eta (3)..... eta abeltzaintza asmatu zirenera arte (duela 10.000 bat urte) iristen da.

Paleolitoko gizakiak (4)..... ziren; izan ere, elikagai gehienak fruituak eta sustraiak bilduz lortzen zituzten. (5)..... ere baziren: (6)..... punta zuten egurrezko lantzak erabiltzen zituzten mota guztietako animaliak ehizatzeke. Haragia (7)..... gisara erabiltzen zuten, eta larruarekin (8)..... egiten zuten. (9)..... ere egiten zuten, ibaietan eta itsasertzean. Batzuetan esku hutsez harrapatzen zituzten arrainak, veste batzuetan tranpak eta hezurrezko (10)..... sinpleak erabiliz.

Paleolitoan gizakiak alde batetik bestera ibiltzen ziren, elikagai bila; beste modu batean esanda, (11)..... ziren. Oro har, ibai edo aintzira baten ondoan ezartzen ziren. Toki epeletan (12)..... bizi ziren, eta toki hotzetan adarrekin eta larruekin (13)..... eraikitzen zituzten, edo (14)..... babes hartzen zuten.

(15)..... kontrolatzeak aldaketa esanguratsua ekarri zuen, horri esker leizeak (16)..... , elikagaiak (17)..... , animalia basatiak (18)..... eta tresna hobeak (19)..... ahal izan baitzituzten.

**PALEOLITOKO SINESMENAK ETA ARTEA****Beha hutsuneak falta diren hitzak sartzen**

- Gure arbasoen lehen sinesmenak (20)..... eta astroak gurtzearekin lotuta zeuden. Haien bizitzetan esku hartzen zuten espirituak zeudela sinesten zuten. Hori dela eta, Paleolitoan (21)..... egiten zituzten, espirituen mesedea eskuratzeko.
(22)..... gizakia izan zen hildakoak lurperatzen hasi zen lehen gizakia. (23)..... batez inguratuta ehorzten zituzten.
- Gizakien lehen arte-adierazpenak leizeetako hormak eta sabaia apaintzeko egindako (24)..... dira. (25)..... deritzo mota horri, hau da, “ (26)..... artea”.

Labar-pinturek ezaugarri hauek dituzte:

- (27)..... figurak irudikatzen dituzte, hala nola oreinak, bisonteak, zaldiak...Animalia horiek (28)..... agertzen dira, eszenak osatu gabe.
- Oso (29)..... dira: arroka zimurdurak aprobatzen dituzte (30)..... - sentsazioa sortzeko.
- (31)..... dira: koloreak mineral-hautsetik lortzen zituzten. (32)..... edo animalia-ileekin egindako (33)..... erabiliz margotzen zuten.

Historialari askoren ustez, (34)..... faboratzeko (35)..... baten parte ziren pinturak.

- (36)..... egin zituzten arroken eta animalien hezurren gainean, baita harrizko, bolizko eta hezurrezko (37)..... txikiak ere. (38)..... izenekoek oso sexu-organo garatuak dituzten emakumeak irudikatzen dituzte. Seguru asko, espirituak tribuko emakumei (39)..... emateko zizelkatzen zituzten horrelako figurak.

**NEOLITIKO IRAILTZA: nekazaritza, abeltzaintza eta sedentarismoa.**


40	bilketa	nekazaritza	ehiza
41	arroza	artoa	garia
42	arroza	artoa	garia
43	barazkiak	patata	oliba
44	ehizatu	elikatu	hezi
45	babesa	haragia eta esnea	espezieak
46	produzitzen	prestatzen	mantentzen
47	nomada	sedentario	bidaiari
48	hiriak	etxolak	auzo edo herrixkak
49	ohitzen	espezializatzen	egonkortzen
50	jabetza pribatua	jabetza publikoa	amankomunazkoa
51	desberdintasun sozialak	berdintasun sozialak	giza hierarkiak

- Duela 10.000 urte inguru agertu zen Ekialde Erdikoan (40)....., seguru asko, natura behatuz zenbait persona konturatu zirelako hazi bat lurrera erortzean, landare bat hazten zela hortik gutxira. Ekialde Erdikoan eta European hazitako lehen espeziea (41)..... izan zen, Asian (42)..... eta Amerikan (43).....
- Aldi berean, animaliak (44)..... zituzten, beharbada, ulertu zutenean animaliak itxituretan edukitzea ehizaztea baino praktikoagoa zela, (45)..... lortzeko. Hezitako lehen espezieak txakurra, ardia, ahuntza, idia eta zaldia izan ziren.
Apurka-apurka, pertsonak beren elikagaiak (46)..... ikasi zuten.
- Lurra landu ahaki izateko, gizakiak (47)..... bihurtu ziren. Horrela sortu ziren lehen (48)..... ibaetatik gertu egon ohi zirenak. Horietan, pertsonak zenbait lanetan (49)..... hasi ziren. Apurka-apurka, herrixketako kibe batzuek lurrak eta abereak metatu zituzten eta (50)..... sortu zen; aldi berean, (51)..... agertu ziren taldeko kideen artean.



METAL AROA: *aldaketak eta asmakizunak.*

Egin gurutzegrama:



- 1.- Garraioak hobetu zituen, gurdietan salgai kantitate handiak garraiatzeko modua ekarri baitzuen.
- 2.- Hiri eta soroetara ura eramateko eraiki ziren.
- 3.- Lanabes horrekin aitzurrarekin baino lursail handiagoak landu zitezkeen, eta bizkorrago, animalien tiro-indarra erabiltzen baitzuen.
- 4.- Metal ugariko lurraldeen eta gainerakoen artean metalak trukatzeko garatu zen.
- 5.- Biztanleria babesteaz arduratzen ziren.
- 6.- Asmakizun horri esker haizearen indarra erabiltzen hasi ziren; horrela, ontziak gero eta handiagoak ziren, eta persona eta merkantzia gehiago garraiatzen zituzten.
- 7.- Merkataritza-bideetako herrixkak aberasten hasi zirenean eta biztanle gehiago hartu zituztenean sortu ziren.



MEGALITISMOA

Idatzi zer kontzepturi dagokion definizio bakoitza (singularrean)

- Monumentu handiak eraitzeko erabilitako harri handia: (58).....
- Menhir ugariz osatutako barruti biribila: (59).....
- Harri handi luzanga, lurlean posizio bertikalean iltzatzen zena: (60).....
- Lurlean iltzatutako harri handiez eta horien gainean jarritako lauza horizontalez osatutako monumentua: (61).....